

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### EUSKO JAURLARITZA

#### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

##### Arabako Lurralde Ordezkaritza

#### **Ferrovial Servicios, SA enpresarentzako hitzarmen kolektiboa**

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da 2019-2020-2021-2022 Ferrovial Servicios, SA Gasteizko lantokiko enpresarentzako hitzarmen kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01100751012018.

#### AURREKARIAK

2019ko irailaren 18an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, negoziazio batzordeko enpresari ordezkariak eta ordezkari sozialek, 2019ko ekainaren 19an sinatu zuten lan hitzarmen kolektiboaren testua.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Sinatutako hitzarmen kolektiboak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 23a

*Arabako lurralde ordezkaria*  
**CARMEN DE CELIS CUEVAS**

**Ferrovial Servicios enpresaren hitzarmena Michelin Vitoria-  
Gasteiz lantokitako, metalaren zerbitzuan**

Hitzarmena adostu duten alderdiak.

Honako hauek sinatzen duten hitzarmen hau: sindikatuak ordezkatzeko, enpresa-batzordeko CGT eta CCOO sindikatuak ordezkariak eta ELA sindikatuko ordezkari bat (ehuneko 55,56ko ordezkari dute), eta, enpresa ordezkatzeko, Ferrovial Servicios enpresaren zuzendaritza.

**1- Indarraldia, iraupena eta salaketa**

Zentroaren hitzarmen honek, metalaren adarrerako, lau urteko indarraldia izango du, eta indarrean sartuko da legitimotasuna duten aldeek, hau da, enpresa-batzordeak eta enpresaren zuzendaritzak sinatzen duten egunean. Indarraldia 2019ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2022ko abenduaren 31n amaituko da.

Funtzio-eremuaren eraginpean daude enpresak Gasteizko Michelin lantegian –kontratuen arabera– metalaren hitzarmenaren mende dauzkan langile guztiak eta Jundizko pabiloian Gasteizko Michelinentzat lan egiten duten langileak; hau da, hitzarmenaren indarraldian ekoizpen aldetik zentroari atxikita dauden langileak.

Hitzarmen hau 2022ko abenduaren 31n salatuta geratuko da, eta akordio espresurik lortzen ez den bitartean hitzarmenak indarrean jarraituko du bi aldeek berori ordeztu duen beste hitzarmen bat sinatzen duten arte, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

**2. Batzorde paritarioa**

Batzorde paritarioa sortzen da, langileen ordezkarietako 5 kidek (sindikatu bakoitzeko batek) eta enpresaren ordezkarietako 5 kidek osatua.

Batzordeko alderdi batek deialdia egiteko eskatzen badu, batzordea hamabost egun pasatu baino lehen bildu beharko da, eta proposatzen diren gaiak bileratik hamar lanegun pasatu baino lehen ebaziko dira.

Batzordeak honako eskumen hauek izango ditu:

A) Hobekuntza-akordio honetako edozein arau interpretatzea.

B) Hitzarmen honetan jasotako konpromisoak lantzea.

C) Langileen kontratazio berrien baldintza partikularrak hitzarmen hau aplikatzearekin bateragarriak diren aztertzea.

Batzorde paritarioa bilduko da ordezkarietako edozeinen heren batek hala eskatzen badu, esleitu zaizkion eskumenak baliatuz.

Batzorde paritarioko sindikatuen ordezkariak bakoitzak eta enpresaren ordezkariak bi aholkulariren laguntza izan dezakete, gehienez ere. Aholkulari horrek hitza izango du, baina ez botorik.

Edozein kidek izan dezake ordezkaria, batzordeari alde aurretik jakinarazten badio.

Batzorde paritarioaren erabakiek balioa izan dezaten, ordezkariak bakoitzaren botoen ehuneko 51k berretsi beharko ditu.

Langileen Estatutuaren 41.6 eta 82.3 artikuluekin bat etorritik, hitzarmen kolektiboan arautzen diren gaietan aldaketak egin behar badira eta horiek lan-baldintzen funtsezko aldaketak badakartzate, aurretiko kontsulta-aldia egingo da; eta hor akordiorik ez bada lortzen, auzia batzorde misto paritarioari bidaliko zaio, akordio bat erdiets dadin, batzorde misto paritarioaren bileren lehen aipatutako prozedura arruntarekin bat etorritik.

Enpresak ezingo dio inoiz akordio hau ez aplikatzeko aukerari heldu Langileen Estatu-tuak 82.3 artikuluan jasotzen duen prozeduraren bidez; epea amaitu baino lehen hura berriz negoziatzen ahalegindu beharko du, beste hitzarmen bat lotzeko edo dagoena berrikusteko, Langileen Estatu-tuaren 86.1 artikulua xedatzen duen moduan.

Batzorde paritarioan sortzen diren desadostasunak, betiere, Lan Gatazkak Judizioz Kanpo Konpontzeari buruzko II. Akordioan (PRECO II) arautzen diren adiskidetze- eta bitartekotza-prozeduren arabera ebatziko dira (EHAA, 2000ko apirilaren 4koa). Arbitraje-prozedura ez da aplikatuko bi aldeek prozedura horren mende jartzea erabaki ezean.

Enpresak hitzarmen kolektibo hau aldi batean aplikatzeari utzi nahi izanez gero (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta), eta langileen ordezkari-kin akordiorik lortzen ez badu, eta gatazkak konpontzeko prozeduretara jota ere desadostasun hori konpontzen ez bada, bi aldeek arteko akordioa beharko da (enpresaren ordezkari- eta langileen ordezkari-aren gehiengoa), hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna OR-PRICCEren mende jartzeko.

### 3. Ordezko zuzenbidea

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, edo hitzarmena hobetzen duen guztian, 2019an sinatutako Arabako industria siderometalurgikoaren sektoreko hitzarmen kolektiboan edo gerora sinatzen diren beste batzuetan ezarrita dagoenari jarraituko zaio.

### 4. Soldatak

Hitzarmen honen eraginpean dauden langileen ordainsaria sindikatuen ordezkari- eta enpresaren zuzendaritzak indarraldiaren urte bakoitzerako negoziazio kolektiboaren bitartez ezarrita dagoena izango da.

Soldata-igoerak gaur egun aplikatzen diren urteko soldata-taulen gainean planteatzen dira.

Hitzarmenaren indarraldian, taula honen arabekoak izango dira oinarrizko-soldatak:

#### Gasteizko Michelinen proposamena (metala)

	2018	2019	2020	2021	2022	PILATUTAKO EHUENKOA
Soldata gordina	19.316,22 euro	20.800,00 euro	22.000,00 euro	23.200,00 euro	23.501,60 euro	4.185,68 euro
3. mailako ofiziala		1.483,78 euro	1.200,00 euro	1.200,00 euro	301,60 euro	
Ehunekoa		ehuneko 7,68	ehuneko 5,77	ehuneko 5,45	ehuneko 1,3	ehuneko 21,7
Soldata gordina	20.595,26 euro	21.800,00 euro	22.600,00 euro	23.200,00 euro	23.501,60 euro	2.906,34 euro
2. mailako ofiziala		1.204,74 euro	800,00 euro	600,00 euro	301,60 euro	
Ehunekoa		ehuneko 5,85	ehuneko 3,67	ehuneko 2,65	ehuneko 1,3	ehuneko 14,1
Soldata gordina	22.237,37 euro	23.200,00 euro	23.700,00 euro	24.200,00 euro	24.514,60 euro	2.277,23 euro
1. mailako ofiziala		962,63 euro	500,00 euro	500,00 euro	314,60 euro	
Ehunekoa		ehuneko 4,33	ehuneko 2,16	ehuneko 2,11	ehuneko 1,3	ehuneko 10,2

Aurreko taularako, 3. mailako ofizialak eta 3. mailako administrariak/administrari-laguntzaileak antzeko kategoria dute.

2022. urtea: estatuko 2021eko KPIa ehuneko 1,3tik beherakoa bada, 2022rako soldata-igoera ehuneko 1,3koa izango da. 2021ean estatuko KPIa ehuneko 1,3tik gorakoa baldin bada, estatuko 2021eko KPIaren soldata-igoera aplikatuko da.

Hitzarmen hau sinatzeko unera arte "ad personam osagarria" daukaten langileek (osagarri hori 14 ordainketa berdinetan ordaintzen da -12 hileko eta aparteko 2 ordainsari-) berdin-berdin mantenduko dute, eta osagarri hori denboran ez da errebalorizatuko, osagarriaren jatorria epealdi horretan indarrean dagoen Arabako hitzarmen siderometalurgikoan aurreikusitakoa baino urteko ordainsari gordin handi batean oinarritzen bada ere.

Aldiz, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera, enpresan langile berri bat hitzarmen honetan aurreikusitakoa baino urteko ordainsari handiago batekin sartzan bada, haren soldatak hitzarmen honetan ezarritako soldata-egiturari egokituko zaizkio, eta langilearen ordainsaria hitzarmen honetan ezarrita dagoena baino handiagoa bada urteko kopuru gordinean, kopuru handiago hori "ad personam osagarri" batean sartuko da (osagarri hori 14 ordainketa berdinetan ordainduko da -12 hileko eta aparteko bi ordainsari-). Osagarri hori kalkulatzeko, hitzarmen honetan ezarritako soldatak hartuko dira erreferentzia gisa.

"Ad personam" osagarria finkagarria eta ez xurgagarria izango da, eta ordura arte kobratzen duten langileentzat mantenduko da, nahiz eta erreferentziako hitzarmeneko soldata-tauletakoak baino igoera handiagoak itundu.

## 5. Lanaldia

Urteko oporraldia 30 egun naturalekoa izango da urte bakoitzeko.

5.1. Urteko lanaldia, 2019rako, 2020rako, 2021rako eta 2022rako, 1735 ordukoa izango da (217 lanegun), 5 eta 4 txandako egutegiak dauzkaten langileentzat izan ezik.

5.2. 5 eta 4 txandako langile guztiek urte bakoitzean bezeroaren egutegi berbera izango dute, hau da, lanaldi, egutegi eta txanda berberak, langileak zein jarduerari dauden atxikita eta urte bakoitzean Michelinek jarduera horietarako xedatzen duenaren arabera; hala, bermatuta geratuko da jarduera bakoitzaren ekoizpen-beharrizanengatik sor litekeen aldakuntza; aktibazio-egunak ere, "X" izeneko horiek, sartuta geratuko dira.

5.3. Bezeroak bere egutegian 4x8 eta 5x8 "X" egun badauzka eta egun horietan gerta badaiteteke lan egitea edo ez, eta bezeroak aktibatu duelako lan egitea beharrezkoa bada, bere egutegian "X" eguna daukan langileak lan egitera joan beharko du, nahitaez, eskatutako txandan. Hilabetea amaitutakoan ordainduko dira disponibilitate-egun horiek, 50 euroko eta poltsara gaineratzeko egun bateko konpentsazioarekin, lan egindako egun bakoitzeko.

Enpresak "X" egunak aktibatzeke gutxienez 7 egun lehenago emango du aurreabisua, lan hori egin behar den eguna baino lehen. Epe hori betetzen ez bada, aurreabisurik ez egoteagatik 20 euro gordineko konpentsazioa ordainduko da aurreabisurik ez den egun bakoitzeko, betiere enpresaren erantzukizuna izan bada.

Urtean aktibatutako X guztien artean, saldo positiboko poltsa bat sortuko da (enpresak lanaldia zor du), urte amaieran geratzen den saldoaren ehuneko 50 erregulatuko da eta emaitza kontuan hartuta hurrengo urteko egutegia egingo da, edo bestela aparteko orduen baliokidea den kopuruan ordainduko da.

5.4. 5 eta 4 txandako egutegia duten langile guztientzat, Michelin egutegian xedatuta dagoenaz gain, 16 orduko poltsa bat izango dute ezarrita, azterketa medikuak eta prestakuntza-ekintzak egiteko, ekintza horietarako abisua batzordeko kideei emanda 7 egun lehenago. Azterketa medikoa egiteko hiru ordu erabiliko dira hamasei orduetatik, baldin eta langileak azterketa medikoa egiten badu; hala egin ezean, hiru orduak prestakuntzarako erabiliko dira. Urtea amaitzean poltsa hori kontsumitu ez bada, ez da metatuko hurrengo urterako.

5.5. Lanaldiaren banaketa irregularrari eta lanorduen poltsari buruzko guztia, bai eta artikulua honetan aurreikusita ez dagoena ere, une bakoitzean indarrean dagoen probintziako hitzarmen siderometalurgikoak eraenduko du.

Michelinen ekoizpen-desaktibaziorik gertatzen bada, Michelinek jakinarazpen ofiziala emanda, orduen banakako poltsa bat ezarriko da, eta ordu horiek berreskuratu egin beharko dira Arabako industria siderometalurgikoen hitzarmenaren 10. artikulua arabera. Urte naturala amaitu ondoren, enpresak poltsa horretan metatutako orduak kontabilizatuko ditu eta hurrengo urteko lan-egutegia prestatuko du, ehuneko 50 berreskuratu behar dela kontuan hartuta.

5.6. 5.3 eta 5.5 puntuetan aurreikusitako poltsak batera hartuko dira kontuan langile bakoitzarentzat urtea amaitu ondoren, eta hurrengo urteko egutegia prestatzean emaitza hori kontuan hartuko da, edo bestela aparteko orduen baliokidea den kopuruan ordainduko da. Ahal dela, formulak bilatuko dira langilearen atsedendietan eraginik ez izateko (adibidez, atsedendiko 8 egunen erdian ez berreskuratzea, udan ez sartzea...)

Egutegietan ezarriko da egutegiek eraturako blokeen gozamen-aldia, eta langileek aukeratu ahalko dute, lehentasun-ordenaren arabera.

Bi atsedeen-bloke ezarriko dira (A eta B), eta langileek honela aukeratu dituzte:

A blokea: antzinasun handieneko langileak aukeratu du aurrena, eta hurrengoek gero, goitik behera.

B blokea: antzinasun txikieneko langileak aukeratu du aurrena, eta hurrengoek gero, behetik gora.

5.7. Michelin 5x8 egutegietan estali behar diren askotariko premiak gaur egungo sistema aldakorren arabera baloratuko dituen formula eskaintzeko xedez, plus eta lanaldi aldakorak ezartzen dira, egutegiaren arabera lantegia urtean irekiko den egun-kopuruaren arabera, taula honi jarraituta:

IREKITAKO EGUNAK	PLUSA	LANALDIA	BERRESKURATU BEHARREKO LANALDIA
354	200,00 euro	1.580,4	
353	200,00 euro	1.580,4	
352	200,00 euro	1.580,4	
351	200,00 euro	1.580,4	
350	200,00 euro	1.581,4	
349	200,00 euro	1.582,4	
348	200,00 euro	1.583,4	
347	200,00 euro	1.584,4	
346	195,00 euro	1.585,4	
345	195,00 euro	1.586,4	
344	195,00 euro	1.587,4	
343	195,00 euro	1.588,4	
342	195,00 euro	1.589,4	
341	195,00 euro	159,4	
340	195,00 euro	1.591,4	
339	195,00 euro	1.592,4	
338	195,00 euro	1.593,4	
337	195,00 euro	1.594,4	
336	195,00 euro	1.595,4	
335	195,00 euro	1.596,4	
334	195,00 euro	1.597,4	
333	195,00 euro	1.598,4	
332	195,00 euro	1.593,6	
331	195,00 euro	1.588,8	
330	195,00 euro	1.584	
329	195,00 euro	1.579,2	8
328	195,00 euro	1.574,4	8
327	195,00 euro	1.569,6	8
326	195,00 euro	1.564,8	16
325	195,00 euro	1.560	16
324	195,00 euro	1.555,2	16
323	195,00 euro	1.550,4	16

IREKITAKO EGUNAK	PLUSA	LANALDIA	BERRESKURATU BEHARREKO LANALDIA
322	195,00 euro	1.545,6	16
321	195,00 euro	1.540,8	16
320	195,00 euro	1.536	16
319	195,00 euro	1.531,2	16
318	195,00 euro	1.526,4	16
317	195,00 euro	1.521,6	16
316	195,00 euro	1.516,8	16
315	195,00 euro	1.512	16
314	195,00 euro	1.507,2	16
313	195,00 euro	1.502,4	16
312	195,00 euro	1.497,6	16

Langileei gutxienez bost egun lehenago esango zaie zein egunetan berreskuratu behar dituzten lanaldiak, eta ezingo dira egutegiaren arabera udaldian egin (egutegian, honako izen hau dauka udaldiak: «oporretako egutegia, 5x8 txanda-aldaketa duena»).

#### 6. Prestakuntzak.

Enpresak hainbat prestatzaile izendatuko du. Prestatzaile horien zeregina sartzen diren langile berri guztiei lanpostu bakoitzaren berezko prestakuntza ematea izango da, eta horrez gain, plantillako langileei birziklatzeko prestakuntza ematea ere.

Enpresak lanpostu bakoitzerako prestakuntza-plan espezifiko bat prestatuko du, sartzen diren langile berrientzat. Baterako batzorde bat sortuko da, enpresako 3 kidek eta batzordeko 3 kidek osatua. Batzorde horrek bi hilean behin bilera egingo du planaren jarraipena aztertzeko.

#### 7. Egutegiak

Enpresaren zuzendaritzak banakako egutegiak entregatuko dizkie langileen legezko ordezkari aurreko urteko abenduan, betiere egutegi horiek lehenago eskura baditu behar beste denborarekin. Nolanahi ere, beranduenez dena delako urteko otsailean entregatuko ditu. Kontratazio berriek, zerbitzu berriek... enpresako batzordeak gainbegiratutako egutegia edukiko dute.

Langileen Estatutuaren 34.3 artikulua arabera, lanaldi baten amaieraren eta hurrengoaren hasieraren artean gutxienez 12 ordu egongo dira.

Behar adina denbora lehenago aurreikusi ezin diren arrazoiengatik (matxurak, istripuak, ....) eguneko lanaldi arrunta luzatu behar bada enpresaren funtzionamendu normal eta ezinbestekoa bermatzeko, enpresak kasu guztietan lanaldien artean 12 orduko atsedena errespetatuko du.

#### 8. Egutegi etengabeagatiko eta txandakako lanagatiko plusa

Egutegia dela-eta txandaka lan egin behar duten langileei konpentsazioa emango zaie hileko plus batekin. Plus hori ordaindu egingo da, langileak oporreatatik, ordaindutako baimenengatik edo laneko istripu baten edo laneko gaixotasun baten ondoriozko absentismoarengatik prestaziorik ez badauka ere. Langilea beste kontzeptu batengatik aldi baterako ezintasuneko egoeran badago, plus horren zati proportzionala soilik ordainduko da.

Plus hori ez da xurgatuko, ezta konpentsatuko ere, Arabako metalaren erreferentziako hitzarmenean xedatutako soldata-eguneraketan bidez.

Diru-ordain gordina honako hau izango da:

– 5x8 txandan dauden langileek 5.7. puntuari adierazten den konpentsazioa jasoko dute, dagokion urteko egutegiarekin bat eginaz lantokia irekitzen den egun-kopuruaren arabera.

– 4x8 txandako langileak: konpentsazioa hilean 145 euro gordinekoa izango da.

– 3x8 3P txandako langileak: (hiru txanda astelehenetik ostiralera eta txanda bat larunbatean), konpentsazioa hilean 105 euro gordinetara izango da.

– Enpresak logistikako ingeniarietara zibileko bozeramaile izendatutako logistikako langileak, gainera, hilean 50 euro gordinetara osagarria jasoko du.

3x8 3p-ko egutegietan konpentsazio-egunak bloketan doitu dira, gehienez ere bira arte. Ez da gaindituko ezarrita dagoen urteko lanaldia.

#### 9. Gaueko lanaren plusa

12 euro gordin ordainduko dira egindako gau bakoitzeko.

#### 10. Aparteko orduak

Aparteko orduak egin ahalko dira soil-soilik ezinbesteko kasuetan edo behar adina denbora lehenago aurreikusi ezin diren arrazoiengatik, eta enpresaren funtzionamendu normalerako ezinbestekoa bada. Kasu horietan, egiaztatuta geratuko da lanaldi-gehiegia ezin dela langile berrien kargura egin.

Aurreko paragrafoaren babespean egindako aparteko orduak honela konpentsatuko dira:

	NORMALA	JAIEGUNA
3. mailako OF	14,50	18,50
2. mailako OF	16,50	20,50
1. mailako OF	18,50	22,50

Jaieguneko aparteko orduaren prezioa igandetan, jaiegunetan eta larunbateko 06:00etatik aurrera egindako lanei aplikatuko zaie.

Aparteko orduak ordaindu beharrez, atsedenaldiarekin konpentsatu ahal dira, enpresak onartzen badu, ordu bat eta 45 minutu aparteko ordu normal bakoitzeko, eta ordu bat eta 75 minutu jaieguneko ordu bakoitzeko. Enpresaren zuzendaritzak eta eraginpean dagoen langileak adostuko dute konpentsazio horren eguna edo egunak noiz erabili.

#### 11. Udako plusa

Lanpostu batzuetan tenperatura-baldintza bereziak daudenez, eta lanaren gaineko ondorioak desagerrarazi dituzten neurri kolektiboak bazter utzi gabe, udako plusa izeneko osagarri bat jasoko dute gero aipatuko diren lanpostuak esleituta dauzkaten langileek, benetan lan egindako egun bakoitzagatik eta udan bakarrik (ekainetik irailera). Bada, 3,5 euro gordinetara izango da plusa eguneko, eta KPIarekin berrikusiko da urtero:

- Autoen neurria-aldaketa.
- Autoen moldeen koipeztaketa.
- F3 autoa.
- Autoen/prentsen mantentze-lan planifikatuak.
- Autoen mintz-aldaketa.
- GC neurria-aldaketa.
- GC prentsen soldatzaileak.

Txanda batean prentsan esku hartzen bada, eguneko zenbateko osoa sortuko da.

Langileek ezingo dituzte aldi berean jaso udako plusa eta Arabako industria siderometalurgikoaren indarreko hitzarmenaren 17. artikuluan bereziki neketsuak diren lanetarako jasotzen den plusa; beraz, bi plusak jasotzeko eskubidea sor dezaketen inguruabarrak berdinak direnez,

Arabako industria siderometalurgikoaren hitzarmeneko nekagarritasun-plusa bakarrik jasoko da, han aurreikusten diren baldintzetan. Beraz, han erregulatzen denak xurgatuko du udako plusa.

## 12. Guardia-zerbitzuak

Bezeroarekin kontratatutako ekipamendu eta instalazioak operatibo mantentzeko eta funtzionamendu-egoera hobezinean egoteko, xede horrekin borondatez euren burua aurkeztu duten langileek guardiak egin beharko dituzte, enpresaren zuzendaritzak ezartzen duen aldizkakotasunarekin.

Guardia-sistema hori honako printzipio hauek arautuko dute:

1. Hurrengo urtean guardiak egin nahi dituzten langileek, urte bakoitzeko abenduan, hori jakinarazi beharko diote idatziz, xede horrekin prestatutako eredu baten bidez, enpresak zentroan duen zuzendaritzari. Guardia behar duten zerbitzuen eta zerbitzu horretarako euren borondatez izena eman duten pertsonen zerrenda bat entregatuko zaio enpresa-batzordeari.

2. Guardia-zerbitzurako izena ematen duten langileek guardia horiek urte naturalean egin beharko dituzte nahitaez; hala egin ezean, enpresak erreferentziako hitzarmen kolektibo sektorialean ezarrita dagoen diziplina-araubidea erabiltzeko eskubidea izango du. Enpresak guardien egutegia prestatuko du, eraginpean dauden langileekin ados jarrita.

3. Guardia-zerbitzuak betetzeko, langileen txandak ezarriko dira, halako moduz non eman beharreko zerbitzurako kualifikazio nahikoarekin euren burua borondatez aurkeztu duten langileen artean berdintasuna egongo den.

4. Aldizka, eta lanaldia amaitu ondoren, prest eta aurkitzeko moduan egon beharko du gerta litezkeen larrialdiez arduratzeko, sistemen, ekipamenduen eta instalazioen egoera ona eta funtzionamendu egokia bermatze aldera. Enpresaren esanetara uneoro egon beharko duen egoera hori, eta lanera dadila eska daitekeen ordu horiek, presentzia-denboratza hartuko dira, hau da, benetan lan egin gabe itxaronaldiengatik, iguripenengatik eta guardia-zerbitzuengatik enpresaren esanetara egon beharreko denboratza.

5. Beharrezkoa den txandan edo txandetan gertutasun hori izateagatik konpentsazio gisa, honako konpentsazio ekonomiko hau jasoko du:

- 103 euro asteburu oso batengatik (ostiraleko 18:00etatik asteleheneko 06:00etara).
- 83 euro asteburu batengatik (larunbateko 06:00etatik asteleheneko 6:00etara).
- 250 euro aste osoarengatik (7 egun).

Atal edo sail batean guardia-zerbitzua handitu behar bada, beste 30 euro ordainduko dira zerbitzua asteburuaren ondoko egunetan 24 orduz luzatzen den aldiro, edo 40 euro, zerbitzua astearen erdian luzatzen bada.

6. Akatsen bat gertatzeagatik, lantokira joan behar badute hori konpontzeko, horrez gain hitzarmen honetan aparteko orduetarako ezarrita dagoen zenbatekoa ordainduko da, benetan lan egin beharreko ordu bakoitzeko, gehi beste ordu bat, lekualdatu behar izateagatik konpentsazio gisa.

7. Gaueko lanetan zein guardia egiteagatik egin beharreko zerbitzuetan, Ferrovialeko bi behargin egongo dira, edo bietako beharginak. Guardia-zerbitzuei kasu egingo zaie eta zerbitzuok egingo dira baldin eta Ferrovial Servicioseko maisutzak edo erdi-mailako agintariek jakinarazten badute.

8. Guardia batengatik langileari etor dadila eskatzen bazaio laguntza emateko, hurrengo lanaldia ezingo du hasi guardia-zerbitzuko azken esku-hartzea amaitzen denetik 12 ordu igaro arte.



### 13. Ongietorriko protokoloa

Enpresa arduratuko da kontratazio berriei harrera egiteaz, eta bi arropa-sorta oso emango dizkie, baita norbera babesteko beharrezko ekipamenduak eta egutegia ere, beren armairua esleituko die eta beharrezkoa den prestakuntza orokorra emango die.

Enpresak bi jantzi emango ditu apirilean (udako arropa), eta beste bi urrian (neguko arropa).

### 14. Norbere burua txukuntzeko eta garbitzeko denbora

Moldeak aldatzeko, Prentsa koipeztatzeko, Molde koipeztatzeko, APIko planifikazioko koipeztatzaile, APIko ihesen soldatzaile eta CGN prentsen soldatzaile lanpostuetako langileek, Mintzen arloko langileek eta granailatzeko makinetako langileek, zikinkeria handia dakarren lana egiten dutenez, euren lanaldia 15 minutu lehenago amaitzeko eskubidea izango dute, beharrezkoa bada, euren burua txukuntzeko; lanpostua utzi aurretik Ferrovialeko arduradunari jakinarazi beharko diote, arduradun hori bertan egonez gero.

### 15. Garbitegi-zerbitzua

Enpresak plantillaren uniformeak eta laneko arropa astero garbitzeko zerbitzua bere gain hartuko du.

### 16. Ordaindutako eta ordaindu gabeko lizentziak eta baimenak

#### 16.1. Ordainduriko baimenak.

Langileek, negoziatutako eta ordaindutako baimenak hartzeko eskubidea izango dute, eta horrez gain honako hauek ere, jarraian azalduko diren arrazoiengatik:

– 1. graduko familia-harremana dagoen kasuetan 3 egun natural aplikatuko dira ospitaleratzeak irauten duen bitartean, eta iraupen hori justifikatu beharko da (baimen horrek Arabako industria siderometalurgikoen hitzarmenaren 30. artikuluko 3. puntua ordeztan du, 1. graduko senideen kasurako).

– Langile bakoitzak justifikatu beharreko 10 ordu izango ditu lehen graduko senideen lagun joateko (baimen horrek ez du ordeztan Arabako industria siderometalurgikoen hitzarmenaren 30. artikuluko 10. puntua).

#### 16.2. Ordaindu gabeko baimenak.

– Odol-ahaidetasuneko lehen mailako senidea Europar Batasunetik kanpoko herrialde batean (behar bezala frogatu behar da) jaiotzen edo hiltzen bada edo azkenburuko gaixotasuna dela-eta ospitaleratzan badute, langileak ordaindu gabeko 6 egunetik hilabete batera arteko lizentzia edukiko du.

– Eskola-egutegiko oporraldietan (Gabonak, Aste Santuak, ekainaren amaiera, uztaila eta abuztua) edo eskola-egokitzapeneko aldietan (iraila), langileek ordaindu gabeko 7 eta 30 egun bitarteko lizentzia edukiko dute seme-alabak zaintzeko (behar bezala egiaztatu beharko da).

### 17. Eszedentziak

17.1. Langileek gehienez lau urteko eszedentzia hartzeko eskubidea izango dute norberaren edo adoptatutako seme-alaba bakoitza zaintzeko, edo adopzio-aurreko zaintzaren edo harrera iraunkorraren kasuan, umearen jaiotegunetik edo epaileen edo administrazioaren ebazpenaren egunetik zenbatzen hasita.

Gehienez ere bi urteko eszedentzia aldirako eskubidea izango du langileak senitarteko bat (bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna duena) zaintzeko, betiere hura adina, istripua edo gaixotasuna edo baliaezintasuna direla-eta bere kabuz balia ezin badaiteke, eta ordaindutako jarduerarik gauzatzen ez badu.

Idatz-zati honetan jasotzen den eta zatitan baliatu ahal den eszedentzialdia bi sexuetako langile guztien oinarrizko eskubidea da. Nolanahi ere, enpresa bereko bi langilek edo gehiagok subjektu eragile berarengatik eskubide hau baliatzeko aukera badute, enpresak mugak jar ditzake bi langileek aldi berean baimena hartzeari buruz, betiere enpresaren funtzionamenduari buruzko arrazoi justifikatuak tarteko badira.

Beste eragile batek sortzen badu beste eszedentzia bat hartzeko eskubidea, hala badagokio, beste eszedentzia hori hasi bezain laster, aurrekoa amaituko da.

Artikulu honetan ezarritakoaren arabera, langilea eszedentzia-egoeran dagoen aldia antzinatasunerako zenbatuko da, eta langileak lanbide-prestakuntzako ikastarora joateko eskubidea izango du, bereziki berriro ere lanera itzuli behar duenean. Ikastaro horietara joatea enpresak eskatuko dio langileari. Lehenengo urtean, langileak lanpostua gordetzeko eskubidea izango du. Epe hori amaitzean, lanbide-talde edo -kategoria bereko lanpostu bat gordeko zaio.

17.2. Genero-indarkeriaren biktima diren langileek, dagokien babesa edo gizarte-laguntza integrala benetan jaso dezaten, eskubidea izango dute eszedentzia-egoera eskatzeko, aurrez gutxieneko zerbitzu-denbora hori eman beharrik izan gabe eta bertan eman beharreko eperik ezarri gabe.

Eszedentziaren lehenbiziko sei hilabeteetan, eskubidea izango dute betetzen duten lanpostua erreserba dakien, eta epe hori kontuan hartuko da antzinatasun-ondorioetarako.

Jarduketa judizialek hala eskatzen dutenean, epe hori hiru hilabetez luzatu ahal izango da, gehienez jota, hamazortzi hilabetez, ondorioak gorago adierazitako berberak izanda, biktima babesteko eskubidea benetan bermatuta gera dadin.

Ordaindu gabeko baimena.

Enpresan urtebeteko antzinatasuna duten langileek ondoz ondoko 10 egun naturaleko baimena eskatu ahalko dute, ordaindu gabea, urte natural bakoitzean. Baimen hau eskola-oporraldietatik kanpo gozatuko da (hots, udatik, Gabonetatik eta Aste Santutik kanpo). Hitzarmen kolektibo honen eraginpeko langileen ehuneko 5ek baino gehiagok ezingo dute aldi berean gozatu egun horietaz.

Langile bat alargun gelditzen bada eta 12 urte baino gutxiagoko semea edo alaba edo ezindu fisiko, psikiko edo sentsorial bat ardurapean badauka, ondoz ondoko 15 egun natural eskatzeko eskubidea edukiko du.

18. Izatezko bikoteak

Behar bezala egiaztatutako izatezko bikoteek ezkonduetakoen eskubide berberak izango dituzte baimen guztietan.

19. Laneko prebentzioa eta osasuna

Laneko osasun-batzordea lau ordezkari osatuko dute, eta bi hilez behin elkartuko dira enpresarekin.

20. Ordu sindikalak

Zerbitzua uneoro ziurtatzeko xedearekin, abisua gutxienez 48 ordu lehenago emateko epealdi bat ezartzen da, atal bakoitzeko arduradunei sindikatu-eginkizunetarako orduak egingo direla jakinarazteko, ezinbesteko kasuengatik edo ustekabekoengatik izan ezik.

21. artikulua. Aldi baterako kontratuak.

Lanpostu finkoak obra-amaierako modalitatearekin estaltzeko kontratuak eta ekoizpenaren araberako aldi baterako kontratuak ezingo dira kontratu guztien ehuneko 20 baino gehiago izan.

ehuneko 20 horretan, ez dira aintzat hartuko lanpostua gordetzeko eskubidea duten, aldi baterako ezintasunagatiko bajaran dauden, oporretan dauden, baimenak eta lizentziak gozaten ari diren... langileak ordezkatzeko egiten diren aldi baterako kontratuak.

#### 22. Klausula gehigarria

Zentroko hitzarmen honetan aurreikusitako zenbateko guztiak hitzarmena sinatzen den egunean jarriko dira indarrean, taulen arabera soldata-igoera izan ezik; azken hori 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da.

#### 23. Klausula indargabetzailea

Hitzarmen honek Vitoria-Gasteizko metalaren zerbitzuko Ferrovialeko langileen 2017-2018 epealdiko hitzarmena ordeztu du.

#### 24. Bilerak enpresarekin

Langileen legezko ordezkarien eta enpresaren zuzendaritzaren artean aldizkako bilerak egingo dira, aldeetako batek eskatuta.

#### 25. Dietak.

Lantokitik kanpo lekualdatu behar izanez gero, kopuruak honela geratuko dira:

- Egun batetik gora: 51,22 euro.
- Egun berean: Gosaria: 2,00 euro; bazkaria: 17,11 euro; eta afaria: 12,04 euro.
- Lurralde nazionaletik kanpoko bidaiak: adierazitako kopuruak ehuneko 10 igoko dira.

Gaua eman behar izanez gero, enpresak lantokitik ahalik eta ostatu gertuena erreserbatu eta ordainduko du, eta arrazoizko ongizate-baldintzak bermatuko ditu. Horrez gain, langileak 6 euroko osagarria jasoko du gau bakoitzeko.

#### 26. Urruntasun-plusa

Lantokian aldaketa bat egiteagatik enpresak, indarrean dagoen legeriaren arabera, langileei urruntasun-plusa ordaindu behar badie, erregelamendu bidez finkatutako plusaren zenbatekoa 0,10euro/km-ra arte handitu beharko dute, salbu eta enpresak bere kontura garraioa jartzen badu.

#### 27. Norberaren ibilgailua erabiltzea

Enpresaren beharregatik eta enpresak eskatuta, langileak ibilgailu partikularrarekin bidaiak bat egin behar badu, 0,40 euroko zenbatekoa ordainduko zaio langile horri kilometro bakoitzeko.

#### 28. Errelebo-kontratuak

Lege-eskakizunak betez gero, langileak erretiroa hartzeko eskubidea erabili ahal izango du, unean uneko indarreko legedian aurreikusitako modalitatearen batean, legedian ezarritakoaren arabera. Enpresak, berriz, izapideak erraztuko ditu, erretiroa har dezan.

Hala ere, hitzarmen honen sinatzaileek berariaz erabaki dute, plantilla berriari ahal izateari begira, erretiro partziala eskatzen duten langileek gutxienez lanaldi osoaren ehuneko 25 eta gehienez ehuneko 50 egin beharko dutela. Lanaldia murriztuko denez, ordainsaria ere murriztu egingo da, eta benetako soldata finkoaren ehunekoarekin bat egingo du.

Hortaz, erreleboa hartzen duen langileari ez zaio lanaldi osoko kontratu mugagaberik egingo, eta erretiroa hartzen duen langileak erretiro osoa hartu arte bakarrik kontratatuko da.

Kasu guztietan, gutxienez hilabete bat lehenago jakinarazi beharko dio langileak enpresari erretiroa hartzeko asmoa duela, edozein izanik ere modalitatea.

## 29. artikulua. Genero neutroa

Hitzarmen hau emakumeak eta gizonak berdin tratatzeko eta ez diskriminatzeko printzipioari jarraikiz idatzi da; hortaz, gaztelaniaz erabili diren gramatika-markek adiera femeninoak eta maskulinoak hartzen dituzte barruan, errepikapenak saihesteko. Bada, maskulinoa erabili da langile emakumeak eta gizonak biltzeko, baina horrek ez du genero-desberdintasunak ezkutatzea ekarri nahi: idazketa konplexuegia saihestea izan da helburua.

## 30. 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko soldata-taula

Aurreko hitzarmenean itundutako ordainsari-egitura berbera mantentzen da eta 12 hileko ordainketak erregularizatzen dira; hala, Arabako Probintziako Hitzarmen Siderometalurgikoan jasotako oporraldiak orain arte zeukan eragin negatiboa saihesten da.

Aurreko hitzarmenean bezala, honako irizpide hau hartu da:

1. Soldata-igoerak handitzea (kategoria bakoitzeko eta urte bakoitzeko ezarrita dago hitzarmen honen 4. puntuan) aparteko ordainsari bakoitzean.
2. Soldataz kanpoko plusaren eta jarduera-plusaren zenbatekoa mantentzea 12 ordainketako bakoitzean.
3. Egun bakoitzeko oinarrizko soldata kalkulatzea hitzarmen honen 4. puntuan itundutako hileko igoeretatik abiatuta, eta kontuan hartuta batzordeak egindako eskaria, oporrak beste hilabete batekin parekatzeari buruzkoa, alegia.

Taula: 2019ko hitzarmena

Kategoriak	Oinarritzko soldata	Jarduera-plusa	Soldataz kanpoko plusa	Aparteko ordainsariak	Soldata Gordina (akats edo ez-egiterik egon ezean)
1. mailako ofiziala	38,65	380,25	101,21	1.657,14	23.200,00
2. mailako ofiziala	37,50	315,19	101,21	1.557,14	21.800,00
3. mailako ofiziala-peoi espezialista	36,72	267,48	101,21	1.485,71	20.800,00
1. mailako administraria	37,65	341,22	101,21	1.587,47	22.224,60
Administrari-laguntzailea	36,96	260,25	101,21	1.485,71	20.800,00
1. mailako antolakuntzako teknikaria	41,27	341,22	101,21	1.697,72	23.768,06
Arduraduna	40,19	367,24	101,21	1.690,97	23.673,63

Taula: 2020ko hitzarmena

Kategoriak	Oinarritzko soldata	Jarduera-plusa	Soldataz kanpoko plusa	Aparteko ordainsariak	Soldata Gordina (akats edo ez-egiterik egon ezean)
1. mailako ofiziala	39,83	380,25	101,21	1.692,86	23.700,00
2. mailako ofiziala	39,38	315,19	101,21	1.614,29	22.600,00
3. mailako ofiziala-peoi espezialista	39,54	267,48	101,21	1.571,43	22.000,00
1. mailako administraria	38,82	341,22	101,21	1.623,19	22.724,60
Administrari-laguntzailea	39,78	260,25	101,21	1.571,43	22.000,00
1. mailako antolakuntzako teknikaria	42,44	341,22	101,21	1.733,43	24.268,06
Arduraduna	41,37	367,24	101,21	1.726,69	24.173,63

Taula: 2021eko hitzarmena

Kategoriak	Oinarritzko soldata	Jarduera-plusa	Soldataz kanpoko plusa	Aparteko ordainsariak	Soldata Gordina (akats edo ez-egiterik egon ezean)
1. mailako ofiziala	41,00	380,25	101,21	1.728,57	24.200,00
2. mailako ofiziala	40,79	315,19	101,21	1.657,14	23.200,00
3. mailako ofiziala-peoi espezialista	42,36	267,48	101,21	1.657,14	23.200,00
1. mailako administraria	39,99	341,22	101,21	1.658,90	23.224,60
Administrari-laguntzailea	42,60	260,25	101,21	1.657,14	23.200,00
1. mailako antolakuntzako teknikaria	43,62	341,22	101,21	1.769,15	24.768,06
Arduraduna	42,54	367,24	101,21	1.762,40	24.673,63

Taula: 2022ko hitzarmena

Kategoriak	Oinarrizko soldata	Jarduera-plusa	Soldataz kanpoko plusa	Aparteko ordainsariak	Soldata Gordina (akats edo ez-egiterik egon ezean)
1. mailako ofiziala	41,74	380,25	101,21	1.751,04	24.514,60
2. mailako ofiziala	41,50	315,19	101,21	1.678,69	23.501,60
3. mailako ofiziala- peoi espezialista	43,07	267,48	101,21	1.678,69	23.501,60
1. mailako administraria	40,73	341,22	101,21	1.681,37	23.539,20
Administrari- laguntzailea	43,31	260,25	101,21	1.678,69	23.501,60
1. mailako antolakuntzako teknikaria	44,36	341,22	101,21	1.791,62	25.082,66
Arduraduna	43,28	367,24	101,21	1.784,87	24.988,23